

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MANZANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda, eta kobratzeko moduan jartzea, borondatezko epean, 2026ko lehen seihilekoko ordainagiriak

Etxeak edateko urez hornitzearen tasa (2026ko lehenengo seihilekoa) ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda egin da, baita 2026ko uztailaren 29an onetsi ere. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, huraosatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorri Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoarekin; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarrereko lehendakariari aurkeztu behar zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2026ko irailaren 1ean hasi eta urriaren 30ean bukatuko da, biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2026ko irailaren 3an kobratuko zaie.

Banaketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak kudeatuko du zordunketa zuzenean ordainketa helbideratu den banaketxeetako kontuetan.

Banaketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei etxera bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Manzanos, 2026ko uztailaren 30a

Errejidore-lehendakaria

FRANCISCO JAVIER ARGOTE URCELAI